



EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA (UPV/EHU).

2019ko deialdia

2018ko abenduaren 20an Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidariko (2018-2022) euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa deritzon ardatz estrategikoaren barruan, euskararen erabilera handitzeko estrategiak lantzea da helburuetako bat. Helburu hori betetzeko UPV/EHUn AKTIBATU programa diseinatu da (<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/aktibatu>).

Hori dela-eta, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzatik honako deialdi hau argitaratzen da:

OINARRIAK:

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen bidez, euskararen erabileraren sustapenean komunitate osoa inplikatu nahi da. Zehazki, AKTIBATU programako lan-ildoetan oinarrituta, irakasleek, ikertzaileek, administrazio eta zerbitzuetako langileek edota ikasleek proposatutako ekimenei laguntza eman nahi zaie.

AKTIBATU programan ondorengo lan-ildoak definitu dira:

- Hizkuntza ohituren aldaketarako estrategiak landu.
- Euskararekiko erantzukizunaren eta jokabidearen hausnarketa sustatu.
- Eredu eta praktika egokiak ezagutzera eman eta partekatu.
- Euskararen aktibazioan parte hartu nahi duten kideen sarea sortu.
- Euskararen erabileraren diagnostikoa egin.

2. ESKARIENTZAKO PROZEDIMENDUA:

Parte hartzen duen taldeko koordinatzaileak erregistro orria (I eranskina) eta plangintza eta aurrekontua (II eranskina) **erregistro bidez** bidali beharko dizkio dagokion campuseko euskara zuzendariari:

Araba



Itziar Txurruka
Telefonoa: 94 501 3071
Posta elektronikoa: itziar.txurruka@ehu.eus

Bizkaia

Aitor Aranguren Iriarte
Telefonoa: 94 601 2639 / 94 601 8142
Posta elektronikoa: aitor.aranguren@ehu.eus

Gipuzkoa

Antonio Casado Da Rocha
Telefonoa: 94 301 5465
Posta elektronikoa: antonio.casado@ehu.eus

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 16.4 artikuluan adierazten digula dokumentuak aurkezteko baliabideak. Hortaz, esan beharra dago interesdunek euren eskaerak lege honek adierazten dituen baliabideetatik ere aurkez ditzaketela.

Jarraibideak:

- a) Proposamenak 2019ko urtean zehar aurkeztu beharko dira, azaroaren 15era arte.
- b) Proposamenak gutxienez ekimenaren hasiera data baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira, ebaluatuak izan eta ekimena hasi baino lehen ebazpena argitaratu ahal izateko.
- c) Gutxienez 3 kidez osatutako taldeak izan beharko dira. Taldeak estamentu ezberdinetako kideez osatutakoak izatea baloratuko da. Era berean, emakumeen parte hartzea bultzatuko da.

3. KOORDINATZAILEAK

Ekimenaren koordinatzailea UPV/EHUko ikasle, irakasle, ikertzaile edota administrazio eta zerbitzuetako langilea izan beharko da. Errektoreordetzarekin hartu-emanak errazteko koordinatzailea izango da harremanetarako pertsona. **Koordinatzailea arduratuko da beharrezko dokumentuak, txostenak eta fakturak bidaltzeaz.**



4. HAUTAKETA-BATZORDEA

Hautaketa Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Euskararen arloko errektoreordea, edo hark eskuordetutako kidea.
- Batzordeko kideak:
 - Campusetako Euskararen arloko hiru zuzendariak.
 - Euskara Batzordeko hiru kide (ikasle bat, irakasle-ikertzaile bat eta administrazio eta zerbitzuetako langile bat).
- Idazkaria: Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzako teknikari bat.

Hautaketa Batzordeak eskariak deialdiaren xedea betetzen duten edo ez aztertu eta onartutako eskarien zerrenda prestatuko du. Ondoren, Euskararen arloko errektoreordeak esleipena argitaratu eta haren gaineko behin-behineko erabakia eman dezan.

Batzordeak irizten badio proposamenen batek ez duela deialdian zehazten diren irizpide minimoak betetzen, ez du diru laguntzarik jasoko.

5. FINANTZIAZIOA

Ekimenak diruz laguntzeko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak 15.000€ jarriko ditu. Behin aurrekontua agortzean ezingo da laguntza gehiagorik esleitu. Finantziazioa III. eranskinean zehazten diren irizpideen arabera banatuko da. Proposamenek sinatzaile kopuruaren arabera gehienez diru kopuru bat jasoko dute: hiru eta hamar kide bitarteko taldeek gehienez 600€, hamar eta hogeikide bitarteko taldeek gehienez 700€ eta hogeikide baino gehiagoko taldeek gehienez 800€ jaso ahalko dituzte.

Egindako gastuak ordainduak izan daitezzen dagozkion jatorrizko fakturak aurkeztu behar dira. Faktura horiek ezinbestean koordinatzaileak aurkeztu beharko ditu **2019ko abenduak 20** baino lehen diru-laguntza jaso ahal izateko.

Era berean, gastu bat finantzatua izan dadin plangintzan zehaztutako ekimenekin erlazionatuta egon beharko da.

Kontzeptu finantzarriak honako hauek dira:



- Material suntsikorra (bulegoko materiala).
- Erreprografia (kartelak, posterrak,...).
- Espazioen (areto, gela, ...) alokairua.
- Euskaraz idatzitako liburuen, aldizkarien eta egunkarien erosketa edo harpidetza.
- UPV/EHUko euskarazko aldizkari zientifikoien (Gogoa, Tantak eta Ekaia) erosketa edo harpidetza.
- UPV/EHUko euskarazko bildumen (ZIO, Legeak-Leyes eta Limes) erosketa.
- Euskaraz antolatutako ekimenak (bilerak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, bertso saioak, musika saioak, antzerki saioak,...) eta sortzen duten bidai gastuak.
- Luncha, bazkaria edo askaria (**beti egon beharko da antolatutako ekimenarekin lotuta**).

6. ERABAKIA

Behin eskariak jasota eta deialdiaren xedea betetzen duten edo ez aztertu eta gero, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak erabakia egingo du, non diru laguntzaren zenbatekoa ezarriko den; eta interesdunari jakinaraziko zaio. Proposamenen batek ez balitu deialdian zehazten diren irizpide minimoak betetzen, ez du diru laguntzarik jasoko.

7. JARRAIPENA

Deialdi honen baitan proposamen bakoitzeko koordinatzaileak egindakoari buruzko txostena (IV eranskina) aurkeztu beharko du **2019ko abenduaren 20rako** diru-laguntza jaso ahal izateko.

8. DIRU-LAGUNTZEI UKOA

Honako arrazoi hauek diru laguntzaren ukamena ekarriko dute:

- a) Sustapen taldearen ukoa.
- b) Fakturak aurkezteko epea bukatzea.
- c) Betebeharrak ez betetzea.



d) Laguntzarako aurrekontu-krediturik ez izatea.

9. INTERPRETAZIOA

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko beharrezko beste arau batzuk emateko ere.

10. AZKEN XEDAPENA

Deialdiak administrazio-bidea amaitzen du, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskararen arloko errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, berdin zenbatutako bi hilabeteko epean.

Leioan, 2019ko martxoaren 11n.

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea

Izptua.: / Fdo.: Jon Zarate Sesma